

Zer da IKASGELA?

24 pertsonarentzako bakarka ikasteko gunea da. Mahai bakoitzak ordenagailua entxufatzeko puntua eta wifi konexioa dauzka. Halaber, kafe makina eta komuna daude erabiltzaileen eskura.

Non dago?

Baltegieta kalea, 18.-behea helbidean dago, HHI-EPA ikastetxea dagoen toki berean.

Noiz erabil daiteke?

Urteko 365 egunetan dago erabilgarri, goizeko 8etatik gaueko 10etara.

Nork erabil dezake?

Goi mailako ziklo formatiboetan edota unibertsitatean ikasten dabilen 18 urtez gorako herritarrei zuzendutako gunea da, bai eta, graduondokoak, masterrak, oposaketak edo antzekoak prestatzen diharduten pertsonen ere.

Talde lana egiteko erabil daiteke?

Ez, ezin da taldeka lanak egiteko erabili. Bakarka ikasteko gunea da eta isiltasunak erabatekoa izan behar du. Taldeka ikas-lanak egiteko udal liburutegia erabil daiteke, zabalik dagoen ordutegian.

Zer egin behar da IKASGELA erabiltzeko?

Eskaera-orri orokorra bete eta udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan entregatu behar da, ikasgela erabiltzeko arrazoiak azalduz. Nahi izatera udal webgunea erabiliz egin daiteke eskaera, ondorengo loturan: <https://www.soraluze.eus/eu/tramiteak/udal-tramiteak/ikasgela>

Eskaera udaletxera bertaratuta egin bada, momentuan bertan Ikasgela erabiltzeko TXARTELA jasoko da. Txartela elektronikoa da eta Ikasgelara sartzeko ateak zabaltzen ditu, zein eta noiz sartu eta irten den erregistratuz.

Eskaera on-line egin bada, udaletxera hurbildu beharko du eskatzaileak txartela jasotzera, astegunez, goizeko 9etatik 2ak bitartean.

Zerbait ordaindu behar da?

5 euro ordainduko dira, fidantza modura, txartela eskuratzekoan. Eskatzaileak 5 euro horiek berreskuratzeko aukera izango du, txartela erabiltzeari uzten dionean, baldin eta udaletxean entregatzen badu.

Txartela izateak ikasteko tokia izatea ziurtatzen du?

Txartelarekin IKASGELA erabiltzeko aukera izango da, baina, elkarteetan bezala, horrek ez du mahaia libre egongo dela ziurtatzen. Beraz, toki librerik badago geratu ahal izango da ikaslea bertan, bestela ez.

Txartela utz dakioko lagun bati?

Ez, txartela pertsonala da eta ezin du beste inork erabili.

Txartela galtzen bada, zer egin behar da?

Lehenbailehen eman beharko da abisua Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan, sarrera-baimena baliogabetzeko eta beste bat eskatu beharko da.

IKASGELA erreserbatu daiteke?

Ez, ezin da erreserbarik egin. Bertaratzean ikusi beharko da tokirik dagoen ala ez.

Ikasleak momenturen batean irten beharko balu, gehienez ere 30 minutuan gorde ahal izango du tokia.

Ezingo da tokirik gorde eguerditik (bazkaltzeko ordua) arratsaldera arte, ezta egun batetik bestera ere.

Araurik badago?

IKASGELAren erabiltzaileek ondorengo arauak bete beharko dituzte:

- Bakarka ikasteko tokia da, beraz, isiltasuna gorde behar da.
- Mugikorrek itzali edo isiltasunean jarri behar dira. Hitz egiteko kalera irten zaituz.
- Txartela pertsonala da eta ezin zaio beste inori utzi. Txartelik gabe ezin da ikasgela erabili.
- Ezin da erreserbarik egin. Gehienez 30 minutuan gorde ahal izango da tokia erabiltzailea bertan ez dagoela.
- Ezingo da tokirik gorde eguerditik (bazkaltzeko ordua) arratsaldera arte, ezta egun batetik bestera ere.
- Plaza libreak badaude baino ezingo da ikasgela erabili.
- Ezin da erre, jan edo ura ez den beste ezer edan.

Arauk errespetatzen ez badira, udalak ahalmena izango du sarrera baimena baliogabetu edo behar diren neurriak hartzeko.

Txartela erabiltzen ez bada, zer egin behar da?

Txartela itzuli beharko da, Herritarrentzako Arreta Zerbitzura eramanez.

IKASGELako azken erabiltzailea izanez gero, zer egin?

Azken erabiltzaileak Ikasgelako, pasilloko eta komuneko argiak itzali beharko ditu, bai eta sarrerako pertsiara itxi ere.

Txartelarekin arazoren bat izanez gero?

Herritarrentzako Arreta Zerbitzura joan eta arazoaren berri eman.

